

**Lemoa Kustik  
Fest-en bigarren  
edizinoa  
antolatu dau  
Lemoako Udalak**  
13. orrialdea

## Zu bai Zu Talentu Lehiaketea

Hirugaren kanporaketea jokatu zan apirilaren 28an. Barakaldoko Wild Project eskolako 3 talde, Lizarrako Pole Dance eskolako Dana eta Leonor, Galdakaoko jantza garaikideko talde bat eta Berastegiko Luis Eraso motozerreagaz sailkatu dira. Hurrengoko kanporaketea maiatzaren 5ean izango da. **12. orrialdea**



**Emakumeen  
I. Klasikoa  
maiatzaren  
12an izango da  
Zeberion**  
10. orrialdea

TOKIKOM

# begitu

arratia ubide zeberio

# 295

2018ko maiatzaren 2a  
hamabostekaria  
[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

## Igorre maiatzaren 6an ebazteko prest

**Maiatzaren 6an, igorretarrak  
"Euskal estatu bateko  
herritarra izan gure dozu?"  
itaunari erantzutera deitu ditu  
Igorren Ebatzi taldeak.**

**H**amasei urtetik gorakoak emon ahal dabe botoa, 3.353 lagunek. Botoa emoteko lekua Lasarte Parkea izango da 09:00etatik 20:00etara. Herri galdeketea jai giroan egingo da eta ondoren emaitzen barri emongo dabe antolatzaileak. Egun horretan ezin izan ezker, maiatzaren 3an eta 4an be botoa emoteko aukerea dago. Gure Esku Dagok bagilaren 10ean antolatutako giza katearen gaineko informazioa emoteko mahaia be egongo da.

Zeanurin herri konsultea egin zan urteurrena ospatuko dabe. 2017ko maiatzaren 7an izan zan eta deitutakoen %55,16k emon eben botoa. **9. orrialdea**



### DIMA

**Euskal jantzari  
gazteenak  
batuko dira  
Diman 13an**

Gaztebarri Dantza Taldeak antolatuta, Dantzari Txiki Eguna ospatuko da Diman maiatzaren 13an. Bertan, Dimako jantzari txikerrakaz batera, Igorreko Arantzarte jantza taldekoak, Zeanuriko Arrikibarrekoak eta Berrizeko Iremiñekoak egongo dira, beste batzuen artean. Alardea 13:00etan izango da plazan eta arrastian erromeria egongo da Ein Go taldeagaz.

Egun horretan gainera, Ganadu, Nekazaritza eta Eskulangintza Azokea egongo da goizean. Han Dima eta inguruko ganaduak egongo dira ikusgai eta baserriko produkturik onenak salduko ditue. Inguruko artisauak be egongo dira euren produktuak saltzean. **7. orrialdea**

### ZEANURI

**Egun biko egitaraua prestatu dabe  
San Isidro eguna ospatuteko**

San Isidroko Abere, Artisau eta Nekazal Produktuen Azokearen XXXVII. edizinoa, ohikoa dan legez, San Isidro egunean bertan egingo dabe. Ardiak eskilau, artxo txuleta eta sagardo dastaketea, gaztagintzea eta zeramika tailerra egongo dira. Arrastian idi-probak eta Arrikibar jantza taldearen emonaldia. Aurreko zapatuan be ospatuko dabe San Isidro jaija zeanuriztarrak. Egun osoko egitaraua prestatu dabe. **8. orrialdea**

### IGORRE

**Igorrek inguruko mendiak Urkiolako  
Parkean sartzeako eskatu dau**

Gueñes-Itsaso goi-tensinoko linearen proiektua gelditu edo behintzat, Igorretik ez pasetako Udalak egindako neurrietako bat da, beste ekintza pilo baten artean. Danak azaldu ebazan Igorreko alkateak interkonexino elektrikoaren gaineko mahai-inguruan. Bertan, Mikel Oterok daukagun eredu energetikoa deskribidu eban, Rosa Martinezek erronken gainean egin eban berba eta Aitor Urrestik Gatikako proiektuagaz daukan loturea azaldu eban. **5. orrialdea**

VOGUE | ORXY GUESS POLICE | GUESS | CEBE Silkstone V&L | Ray-Ban

**ORTO-K** TRATAMENDUA  
LO ZAUDELA, MIOPIA ZUZENDU

Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia) | 94 657 70 03 | [olaetxeoptika@hotmail.es](mailto:olaetxeoptika@hotmail.es)



## ARRATIA KOLOREETAN

## BIDELAGUN ETA EZ BETI GIDARI

Umeak ulertzea asko kostatzen jaku sarritan, gu inoz haurrak izan ez bagina legez. Ebatziak hartzean jakingo ez balebe bezala, momentu guztietan gure babespean behar gaituelakoan. Umeak errealdadea sumatu eta biziteko modu bat daukie, berezia, magikoa. Helduak erralidade hori interpretetako beste erraminta batzuk daukaguz, eta haurrak baino mailatxo bat gorago ipinten dogu geure burua. Zuk ez dakizu, nik bai.

Parte hartzea, horizontaltasuna eta tratu onen inguruko lanketa

egiten hasi zan Zaztaparrak oin dala urte batzuk, eta horretan jarraitzen dogu. Fokoa non jarri, hor dago kakoa. Hezitzaile gisa ikustea baino begiraten ikustea ezinbestekoa da. Begiratu eta entzun daiguzan gehiago umeak, epaitu barik, eta saihestu daigun gure gidari papela, posible danean; izan gaitzean zintzoak eurakaz. Hartuemon zintzoak gura badoguz, guk geuk eregi behar dogu bidea. Itxi deiguzan ebatziak hartzean, jausten eta jaikitzen. Errespetau daigun jolasa merezidu dauan



moduan, daukien eta daukagun altxor baliozkoena da eta. Jolasak ezinezkoa posible egiten dau, ez dauka mugarik, ez daigun guk mugatu. Bakotxa desbardina garran moduan, jolasteko erak be halakoxeak dira, eta diran moduan errespetau behar geunkez.

Umeak frustrazinoa eroaten ikasi behar daben moduan, helduok be badaukagu hamaika lan horretan, ezin dogu ahaztu. Izan gaitzean bidelagun, eta ez beti gidari.

**Zaztaparrak Asti Taldea**

## TELEFONO INTERESGARRIAK

**Larrialdiak**

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
SOS DEIAK 112

**Guardiako Farmaziak**

**09:00etatik 22:00etara**

**Aprilaren 30etik maiatzaren 6ra**

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g  
Tel.: 94 631 39 50

**22:00etatik 09:00etara**

Melero. Amorebieta-Etxano.

**Maiatzaren 7tik 13ra**

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7

Tel.: 94 631 73 11

**22:00etatik 09:00etara**

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

**Maiatzaren 14tik 20ra**

Rodriguez Martinez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27

Tel.: 94 673 61 09

**22:00etatik 09:00etara**

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.

Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

**Urte osoan**

**22:00etatik 09:00etara**

Zoco Robles Miren Nekane. Urbi 15. Basauri.

**Medikuak**

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 11

**Areatza:** 94 631 71 52

**Bedia:** 94 631 34 13

**Dima:** 94 680 19 74

**Igorre:** 94 600 74 63

**Lemoa:** 94 631 31 16

**Ubide:** 945 38 50 14

**Zeanuri:** 94 673 91 49

**Zeberio:** 94 648 20 79

**Udaletxeak**

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 05

**Areatza:** 94 673 90 10

**Bedia:** 94 631 42 00

**Dima:** 94 631 57 25

**Igorre:** 94 631 53 84

**Lemoa:** 94 631 30 05

**Ubide:** 945 45 03 22

**Zeanuri:** 94 673 91 46

**Zeberio:** 94 648 10 79

**Udalen Mankomunitatea**

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

**Gorbeialde**

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

**Parketxea** 94 673 92 79

**Igorreko Kultur Etxea**

94 673 62 51

**Gorbeialde Irratia**

94 631 52 90

**Euskotren** 902 543 210

**Areatzako Notarioritza**

94 673 92 26

**Bizkaibus 94 612 55 55**

**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri**

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

**Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengoa

22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango**

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

**Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo**

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

**Otxandiotik urtekerak:** Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

**Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide**

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

**Zeanuri-Lemoa-Bilbo**

**(Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Lemoa-Zeanuri**

**(Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Zeberio-Ugao**

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10\*, 11:00, 11:45\*,

14:10, 15:00, 16:10, 18:30\*, 20:20.

\* Basauriraino (Ariz) heltzean da.

Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

**Ugao-Zeberio**

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30,

19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

**Artea-Zeberio-Ugao**

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00\*, 14:00,

16:00.

\* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Ugao-Zeberio-Artea**

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 7:20\*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

\* Igorreko Instituturaino heltzean dira.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Ermitabarri-Arriorriaga**

Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

**Arriorriaga-Ermitabarri**

Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

**La Union 94 427 11 11**

**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

**Gasteiz-Bilbo**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.

**Babesleak:**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral



**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.

**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

**Telefonoa:** 94 631 73 14.

**Helbide elektronikoa:** [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

**Webgunea:** [www.begitu.org](http://www.begitu.org)

**Zuzendaria:** Iñigo Iruarizaga.

**Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

**Erredakzino taldea:** Jon Urutxurtu.

**Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga.

**Publizitatea:** Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

**Banaketa:** Roxana Constantin (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta, Xabier Beitia, Marta Rodriguez eta Rut Rodriguez (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Oriol Fernandez eta Iker Perez (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Berbizkunde Arroita (Zeberio).

**Tiradea:** 7.300 ale.

**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.

## ZEURE BERBEA

### Sexu harreman adostua?

"La Manada"ren epaia jakin nebanean amorrua, haserrea, ostia txarra, tristurea, negargurea eta inpotentzia sentidu neban eta gaur arte bardina sentiduten jarraitzen dot. Ez da izan lehenengo aldiz justizia sistema honetan ez dodala sinisten, baina barriro be, kolpe itzela hartu dot.

Hau, zoritxarrez, ez da izan bortxaketa kasu bakarra baina hartu dauan dimensio publikoagaitik, oso arriskutsu ikusten dot sententziaren irakurketeak bidaltzen dauan mezua zera dalako: holango kasuetan androk defendidu behar garala nahiz eta geure bizitza arriskuan ipini. Hau da, biktimearen ardurea dala bortxaketa batetik babestea eta segun zelan egiten dauan, sententzia bat edo beste bat izango da. Nafarroako Psikologiaren Elkargo Ofizialak egin dauan adierazpenean idea hau oso argi azaltzen da: gizarte baten non andrearen kontrako indarkeria estrukturala dagoan, in-timidazioaren inguruko debeteak

bidea emoten dau eta erdigunean ipinten dau biktimearen ardurea bere burua babesteko bortxaketa baten, eta aldiz, erasotzaileen ardurea erdigunetik ateratzen dau. Horrezaz gainera, Ricardo González epailearen argudioak guztiz mingarriak dira. Berak bortxatzaileak absolbidu gura ditualako biktimearen errelatoa zalantzan ipinten daturalako eta abusuaren orde sexua adostua izan zala dinoalako! Panorama honetan nor ausartuko da bortxatu izanaren salaketea ipinten?

Honen aurrean, lehenengo eta behin argi daukat nik neskeari sinisten deusadala eta bardin jata zer egin eban edo zer ez eban egin, ardurea ez dalako berea, erasotzaileena baino. Bigarrenik, bortxaketearen kulturearen aurrean urgentea da gizartean sexu heziketa ez patriarkala bultzatzea. Amaitzeko, autodefentsa feministearen garrantzia azpimarratu gurako neuke, gu geu indartsuak eta ederrak garalako eta sarea beharrezkotzat jotzen dodalako. Gora borroka feminista!

PILI ÁLVAREZ MOLÉS

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, berrikut eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Aitaxe



Persona ezkonduaren bikotearen aitari aitaxe edo aitexe esaten jako (aitaxea, agoskatuta). Honako era honeetara be jaso dogu berba hau gure artean: aitaite, aitaite (Zeanurin), aiteite (Lemoan), aitagarreba, aitegiñerraba (Ubiden eta Zeanurin), ginarreba eta giñarraba. Euskal Herri zabalean baina, aitagarreba da. Argazkiak dinokun moduan: "Aitaxea beti prest etxeko gazteai laguntako". Arratia inguruan aitaorde danari be aitaxea esaten jako.

## ERETXIA

### Eragozpen fiskala, eraldaketa sozialerako tresna

Desbardintasun soziala, pobrezia eta bazterketaren igoera kezkarriak; eskubide eta lorpen sozialen murrizketak; pensioen duineztasun eta apurka-apurkako desegitea; indarkeria matxisteak, mugen militarizazioak, ingurugiroaren suntsipenak; langabeziaren maila altuak, neurribako gastu militarrik... gaurkotasunaren arpegia konfiguretan dabe. Desbardintasuna, diru-gosea, matxismoa, indarkeria eta alkartasun eza lar presente dagoz gure egunerokotasunean.

Aurtengo NATOkoko exigentziak, gobernuen gastu militarra %80ra igotea gura dabe, estatu espainiarrik eta bere defensako ministroa Dolores de Cospedalek, hurrengo 7 urteetan aurrekontua bikoiztearen konpromisoa hartu dabe. Pasa dan 2017an, estatu espainiarrik aurrekontua gastu militarrean 30.000 milioe euro baino gehiagokoa izan zan, eta handitze honen ondorioak geuk jasango doguz, suntsipen gehiagok, pobretze gehiagok eta persona desplazau gehiago ikusiko doguz gatazka eta miseriatik iges egiten. Eredue neoliberal eta patriarkalaren kontra zerbaist egin gura dogu!

Eragozpen fiskalak bidebako politiken biktime papela gaintzetzeko aukerea emoten deusku, alternatiba barriak sortu eta politika injustuak gelditu arazoten daben eragile bihurtuz.

Baina, zer da Eragozpen Fiskala? Eragozpen Fiskalaren lehenengo kanpainak, Euskal Herrian eta estaduan 80. hamarkadan egin ziran, mobimentu antimilitaristek bultzatuta, eta helburutzat jendartearen desmilitarizazioa daukie, gastu militarra behar sozialetara bideratuz. Orduetik, eragozpen fiskala desobedi-

### KEM-MOC, ONGI ETORRI ERREFUXIATUAK

Eta hamaika alkarte gehiago

penaren bitartez, PFEZ- ez-bidezkoak diran aurrekontu sailen finantzazinoari. Hau da, gastu militarrik, bankaren erreskateari, mugen militarizazioari, Abiadura Handiko Trena lango makroegiturari... izakera eraldatzaile eta solidarioa oinarria daukien alternatibak lagundu eta bultzatzeko. Ez datza, beraz, ez ordaintzean, diru horri helmuga egoki bat bilatzean baino.

Zer bilatzen dau? Bakotzak izan ahal dituan motibazioez gainera, Eragozpen Fiskalak modu antolatu eta kolektibo baten gobernuaren inbersino jakin batzuen kontra azaltzea eta gure dirua ez-bidezko aurrekontu-sailetara ez bideratzeko presino egitea ahalbidetzen dau. Bestetik, gura dogun jendarte ereduari buruzko eztabaida soziala sortzeako eta gure dirua proiektu eraldatzaileak bultzatzera bideratzeko aukerea emoten deusku. Atzenik, eragozpen fiskala ahaldunduz gaituan eta beste mundu bat sortzeako bidean protagonista egiten gaituan tresna dogu.

Helburu alternatiboak ditu. Eragozpen Fiskalak desbideratutako dirua ekimen eraldatzaileak bultzatzen dituen kolektiboak bideratzea ahalbidetzen dau: alkartasunagaz lotutako taldeak, talde feministak, antimilitaristak, ekologistak, antikapitalistak, errazismoaren kontrakoak... Mundu justu bat eregiteko, ezinbestekoa da benetako "defensa" sozial honek indartzea, ustezko "defensa militaristeari" alternatiba legez. Igaz, 100.000 euro inguru desbideratu ziran modu honen bitartez.

Eragozpen fiskala errezteko, kanpaina hau bultzatzen dogun kolektibok Bilbon, Gasteizen eta Donostian zabalduko doguz bulegoak errenta aitortpena eragozpen fiskalari egokituta doban egin ahal izateko.

Gure zergakaz alternatiba sozialak eregi daikeguz, ez-bidezkoa dana desobedituz, eta zilegia dana legala danaren aurrean ipiniz. Gizarte justuago baten eraikuntza kolektiboan parte hartu eizu! Egizu Eragozpen Fiskala!

tzia zibilaren ekintza kolektibo eta ez-biolento legez planteetan da. Praktikan, estaduari ezezkoa emotea da -errentearen aitort-



## LUMATUTEN

MAITE ARTABE  
URKIRI**Right now-  
iraultzaileak**

**B**adakit aburgesauta nagoa, bai, baina iraultzaileak miresten dodaz.

Eta momentu honetan erreferentea izan daiteken iraultzailerik badago, hori Angela Davis da.

TattooArteaneko inaugurazioan ikusi ahal izan genduan dokumentala IPESek egindakoa izan zan, berak parte hartu eban jardunaldien inguruan eta bera ardatz hartuta. Jardunaldiak eta baita dokumentala be kartzelen abolizionismoaren ildoan dagoz eta argi eta garbi azaltzen ditue horretarako argumentuak.

Merezidu dau dokumentalak. Puzzle biribila, kolore eta imajina ederrez osatua eta akatsik bako hari argumentalagaz josia. Ikusi, aukerarik badozue parean.

Dokumentalean agertzen diran guztiak autoridadedun persona adimentsuak dira eta berba be holantxe egiten dabe.

Gustua emoten dau entzuteak.

Baina guztien artean distira berezia dauka Angela Davisek. 1944an jaiotako andrea izanda, zelango indarra eta presentzia daukan! Bere ekarpen ideologikoa handia da eta bere ondoren ez dira gauza bera izango klase, erraza eta genero burrukak.

Baina batez be personea bera miresten dot. Bere esaldia da honako hau: "Mundua erradikal aldatzea posible balitz bezala jardun behar dozu. Eta denpora guztian egin behar dozu". Eta esan eta egin berak alkartasuna bidelagun hartuta. Giza eskubideen eta errazakeriaren kontrako militante sutsua da, izan be. Alkartasuna eta iraultzearen ilusioa beti modu positiboan baina sekula ez inozan. Erreferente gazteentzat egindakoengaitik eta erreferente edadekoontzat oin be bere bidean etsi barik jarraitzeagaitik. Zeozergaitik esan eban baita be "askatasuna etenbako burrukea da".

Era berean, bere eretxian, burruka hori ez da geroko itxekoa dokumentalaren amaieran esan eban legez "uste dot beharrezkoa dala benetan zer gura dogun ointxe esatea, ointxe bertan, *right now*".

Eta TattooArteaneko antolatzaileak hasi dira horretan, zer gura daben esaten; eta nik badakit aburgesatuxea nagoa, baina miresten dodaz *right now*-iraultzaileak.

## ZERTZEAN



AINHOA MENDIA



## BEGI TXINDORRA

**Z**eanuriko Eguzkiola Kultura Alkartek, Nazinoarteko Liburu Eguna ospatzeko ekimen barri bat ipini dau martxan: "Liburu librea" izeneko proiektua, hain zuzen.

Kalean askotariko liburuak daukazan liburutegi bat itxi dabe. Edozeinek hartu leike liburu bat eta etxera eroan. Bertan itxi daikezuz zureak be, baina hau ez da beharrezkoa.

Liburuak eskurik esku eroatea da gauzea, honeek bizirik mantendutea da helburua.

Baldintza bakarra, altxor hori ondo tratetea da, besterik ez.

**Eguzkiola Kultura Alkartea**



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa  
LORAZAINTZA  
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostisc.com

**agoa** Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika  
hagin klinika  
Marina Urigoitia Aldekoa  
Ondarregia  
Bidebarri 1, behea  
48140 Igome-Blokaia  
T. 94 631 50 39  
Kalegatu Zerbaitz 100  
R.P.S. 21/06

**ASESORIA  
Gorbeialde**  
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza  
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza  
Titnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82  
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

**FISIK**  
FISIOTERAPIA ETA  
ERREHABILITAZIO ZENTROA  
Tel. 94 685 11 16  
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE



## IGORRE

# Itsaso-Gueñes linea eta Gatikatik Frantziarako urpeko konexinoen loturea azaldu eben Igorren



Beinat Anzola, Mikel Otero eta Rosa Martinez mahai-inguruan.

### Erredakzioa

Martxan dagozan interkonexino elektrikorako megaproiektu biak ez dirala beharrezkoak eta kapital finantziarioari baino ez deusiela mesede egiten azaldu eben EH Bilduko Mikel Otero legebiltzarkideak, Rosa Martinezek Equo Berdeak taldeko Podemos-eko diputadua Espainiako Korteeetan, eta Aitor Urresti EHUKo irakasleak, Igorren. Beinat Anzola Igorreko alkateak, heritik pasauko dan Gueñes-Itsaso autopista elektrikoaren kontra 2011tik gaur arte Udalak egindako guztia azaldu eban.

Azpiegitura bi dira baina lotuta dagoz. Bata, aspalditik ezaguna da Arratian, Gueñes eta Itsaso arteko goi-tensinoko linea. Proiektuaren kontra 2011n herritarren alegazioak aurkeztu ziranetik, asko izan dira Igorreko Udalak egindako móbimentuak proiektua bertan behera geratu daiten edo behintzat Igorretik ez pasetako. Beste megaproiektua, Gatika eta Cubnezais (Frantzia) herria, 370 kilometroko kable batez, urpetik lotzeako egitasmoa da. Azpiegitura honek herrialdeen arteko energia konexinoa bermatzeko helburua dauka. Eta bien arteko loturea "argia eta garbia" da Oteroren berbetan. Gueñes-Itsasoko lineak Abanton produzidutako energia eroango leuke Gatikara.

Europako Batasunak herrialdeen artean energia garraiatzea gura dau herrialdeen energia menpekotasuna gixitzeko. Horretarako plan bat dago eta planaren arabera, 2030erako European sortzean dan

energiaren %30 herrialde batetik bestera garraiatzeko baliabideak behar dira. Mahaikideen arabera, horixe da megaproiektu bi honek egiteko atxakia. Baina ez da beharrezkoa. Alde batetik, Frantziagaz konexinoa badagoalako alde aurretik, eta bestetik, herrialde biak kosumiduten dabena baino gehiago produziduten dabelako. Espainian Red Eléctrica Española (REE) enpresek garraiatzen dau energia.

### Energia eredia

Mikel Oterok, gaur egungo energia eredia deskribidu eban. Ereduek etenbarik igoten doan energia kopuru izugarria behar dau bere sostengurako, mugatuak diran energia iturrietan oinarritzen da, proiektu erraldoiak bultzatzen ditu (zentralizazioa), esku gixien kontrola sustatzen dau (oligopolioa) eta ez dauka natureagazko errespeturik. Izan be, aldaketa klimatikoa neurri handi baten energia eredu honegatik etorri da.

Baina eredu hau pasa dan mendekoa da eta proiektuok eredu horren arabera egindakoak dira eta ez dira egokitzen gaurko errealidadera. Alde batetik energiaren konsumoak "2007an jo eban gailurra eta hurrezkeroztik estankau, eta batzuetan, beheranzko joerea be izaten dau".

Interkonexioa energia barriztagarientzat beharrezkoa dala eta energia merkeagoa eta garbiagoa izango dala defendiduten dau Espainiako Gobernuak. Baina Transizino Energetikoan Adituen Batzordeak egindako txostenaren arabera, Bizkaiko Golkoko proiektuak energia sortzeako kostuak %5 eta %6 artean gehituko dira eta CO2 emisinoak %11 igongo dira. Gainera, Gatika Frantziako zentral nuklear batez konektatuko dala esan eban Oterok. "Kapitalak negozio seguruak behar dauz eta argindarraren faktura derrigor pagau behar dogu". Interkonexino honegaz, kapitalak irabaziak handituko ditu.

### Erronka energia biltegitratzea da

Erexi bardinekoa da Rosa Martinez. Bere ustez be, proiektu honek helburua kapital finantziarioari ur-

tekerea emotea da. Interkonexino honek egiten diru asko irabazten dabe enpresak eta gainera, egiten dabezanak, beharrezkoak diran ala ez esaten dabezan berberak dira. "Hauxe da sistema honen tranpea".

Erabilten ez diran azpiegitura handi asko egin dira atzen urteotan, eta hau be horreetako bat izango dalakoan dago Martinez. "Eta danon artean argindarraren fakturan pagau beharreko 1.800 miloe euroko aurkentuak dauka".

Energiaren oligopolioak barriztagarrietara jo dau. "Eztabaidea irabazita dago. Hor ekologistak diskursoa irabazi dogu" baina kakoa dago noren eskuetan ipiniko dogun energia. Izan be, interkonexinoak balio izango dabe instalazio handiak produziduten dabena energia garraiatzeko eta Endesa, Iberdrola eta Accionaren eskuetan egongo dira. Hau da, "oin daukagun eredu energetikoa barriztagarrietara eroango dogu". Erronka teknologikoa energia barriztagarrien biltegitratzean dago eta European inork ez dau ikerketa horretan inbertiduten. Amerikako Estatu Batuak eta Txina dabiz horretan.

### Proiektu biak lotuta

Aitor Urresti EHUKo irakaslearen arabera, "Gueñes-Itsaso linea Gatikako proiekturako da. Kantauri isurialde

osoko sarea Gatikatik pasetan da eta Gatika Frantziagaz lotu ezker, Frantziagaz elektrizidadea trukutzen dogun neurrian, azpiestazio hori saturauko litzateke eta beste bide bat behar da".

Baina 400 kwko lineak begiratu ezker, instalatutako energiagazko, momentu honetan European daukienaren bikotxa baino gehiago daukagu. Urrestiren ustez arazoa ez dago sare elektrikoan eta konexinoetan, merkaduaren egitura baino. Hau aldatutako aukeren artean, sare adimentsuak, biltegitratzeko sistemak, energia aurrezteak eta teknologikak geureganatzea proposatzen ditu.

EAE, Estaduan energia barriztagarri gixienetakoa daukan lurralde da, %7 baino ez. Eusko Jaurlaritzak, gasaren aldeko apustu garbia egin dauala esan eben mahaikideak.

### Gueñes-Itsasoren kontra

Beinat Anzola Igorreko alkateak, Gueñes-Itsaso linearen kontra Igorren egindakoaren barri emon eban. Ekintzak, 50etik gora izan dira 2011tik gaur arte. Alegazioen erantzuna 2016an heldu zan udalera. "2011n aurreproiektuari alegazioak eta alternatibak aurkeztu ziran. Ingurumenari jagokozan alegazioak, etxebizitzai, distantziak, urigintza aldetiko eraginak... Eta

eskatu jakon Aldundiari sai zuriaren inguruan txosten bat egiteko". Izan be, inguru horretan sai zuriaren hainbat habia dagoz eta hegazti hori babestuta dago.

Sai zuriaren babesaren legea izan da Udalak erabili dauan proiektuaren kontrako tresna nagusia. Udalak, kanpoko abogadu bateri txostena eskatu eutsan goi-tensinoko linearen proiektua geldituteko aukerak aztertzeke. Gixi dirala eta egotekotan, ingurumen aldetik sai zuriaren babesa dala-eta egongo zirala azaldu eban abogaduak.

REEk bide alternatibo bat proposatu eban sai zuriaren habitatik ez pasetako. Eta Udala "BFAko Ingurumen teknikariakaz berba egin eben auzoko batzuen bitartez jakin genduan beste habia bat egoala hasikerako puntuan" eta hau be txostenean sartu zan bide alternatibo horren kontra egiteko. REEK "hainbeste be ez eutsala eragiten" erantzun eban alkatearen arabera.

2017ko abenduan heldu zan Gueñes-Itsaso linearen Baimen Administrazioa. 2018ko martian, Udalak gora joteko errekursoa aurkeztu eban Baimen Administrazioaren kontra.

Urtailan, Eusko Jaurlaritzari Urkiolako Parkea handitzea eskatu eutsan Igorrek sai zuriaren habiak dagozan mendi tontor lerro osoa sartzeko.

MUSIKA. ARTEA. GARAGARDOA ETA JANARIAREN JAIALDIA

# LEMOAKUSTIKFEST 18

MAIATZAK 12

IZARO 22:00 KIROLEDGIA

EKIZA - INUN - KEU

19:30 ANBULATORIO PLAZA 17:30 & BIHOTZ GOROSPE ARLOMAGUSIA PLAZA 16:30 ESKOLAKO ATERPEA

LIV WALLACE - MAREN

13:30 ESKOLAKO ATERPEA 12:30 ESKOLAKO ATERPEA

+ FOOD TRUCKS + GARAGARDO DASTAKETA

**J.A. IZQUIERDO**  
PINTURA LANAK

MOKETA · SINTASOLA · PAPERA

Elizalde, 33 D - 1ºB - 48140 IGORRE (Bizkaia)  
Tel. 94 831 54 82 - 908 554 018

**ARKITEKTO TEKNIKOA**

**Almudena Simarro Armero**  
664 763 741 - arkitektura@almuartek.com  
**ZEANURI**

BIT (ITE), EEZ (CEE), Erredakzioa PSS,  
Oibetako segurtasun eta osasun koordinazioa

almuartek.com



## DIMA

Azken Gaua Infernuan,  
Dimetalerako dirua batzeako

## Erredakzioa

Pandemia, Hell Light, Andral eta A.D. metal taldeak kontzertuak eskeiniko dabez maiatzaren 5ean 20:30etik aurrera Dimako Abaroa Aretoan. Azken Gaua Infernuan izenpean, urri lehenengoan egingo dan Dimetal Fest jaialdia presatzeako dirua batzeako antolatu dabez kontzertu honek. Sarrerak bost euroko prezioan salduko dira.

Abaroa aretoan joko daben lau taldeak, metal musikako lau estilo desbardin egiten dabe me-



talzaleen gozamerako. Izan be, Pandemia taldeko kantabriarrak thrash metala egiten dabe; Andral brasildarrak fastrash estiloko musikea; Hell Light, brasildarrak honek be, funeral doom eta Markina-Xemeingo A.D. taldeak brutal crossover deitu daben estiloko. Markinarrak, Dimetal Fest-en be joko dabe.

Dirua batzeako helburuagaz be, 600 euroko txeke bat zozketatuko dabe eta errifa horretarako 10.000 txartel dagoz salgai euro baten prezioan.

## Dimetal Fest 2018

Aurtengo Dimetal Fest urri lehenengoaren 28 eta 29an izango da. Guztira 30 bandak joko dabe lau eszenalekutan, egungo metalaren panoramearen ikuspegi zabala eskeiniz.

## ZEBERIO

Untzuetan mendira igoera, historiaren  
atal ezezaguna ezetuteko

## Erredakzioa

Untzuetan Nafar Gazteluak Zeberiotik Untzuetan mendira ibilaldia antolatu dau maiatzaren 5erako, "historiaren zati ezezagun hau" jakitera emoteko. Han, 11:30ean, hamaiketako herrikoia, aureskua eta ekitaldia egingo dabez. Ondoren, 15:00etan, herri bazkaria egongo da Arrankudiagako Gizarte Etxean. Txartelak Zeberiotik Herriko Tabernan dagoz salgai.

Untzuetan mendiarantz tontorrean, gaztelu baten aztarna arkeologikoak dagoz. XI. mendean Bizkaiko Jau-



rerria Iruñeko Erresumaren zati bat izan zan eta ordukoa da gaztelua, Nafarroako erreinuaren defents sistema baten parte. Gaztelua, "naffarra" zala aldarrikatzeko sortu zan Untzuetan Nafar Gaztelua ekimena 2013an. "Zeberio, Orozko, Ugao, Arrankudiaga, Zollo eta Arakaldoko lagun talde bat batu ginan. Asmoa garbia zan, ezkatututa dagoan gure memoria historikoaren atal hau berreskuratzea".

2014an, gazteluaren historia kontetan dauan plaka bat ipini eben Untzuetan.

## AREATZA

Ganadu eta Artisau Azokea  
Santikurutze jaietan

## Erredakzioa

Areataz bere alderik baserritarrena adierazoko dau Karpoko Santikurutze jaietan, maiatzaren 5 eta 6an, hain zuzen. Zapatuan, Santikurutze igongo dira billaroztarrak, antxinako tradizioa mantenduz eta arrastian Uribiarten eta plazan jarraituko dau jaiak herri kirol desafio eta erromeriagaz. Domekan ganadu azokea izango da. Bertan, Areatazko ganaduzainen eta inguruko ganadua erakutsiko dabe jai giro onean.

## Maiatzak 5, zapatua

11:00etan, Santikurutze igoera.

12:00etan, mezea Santikurutzen.

13:00etan hasita, kalejirea Areatazko Bandeagaz.

14:00etan, Gisadu eta Paella Lehiaketaren aurkezpena Karpoko landan.

14:30ean, bazkari herrikoia (bakotzak berea eroan). Ostean trikitala-



riak, Hala Dzipo-ko lagunak.

18:00etan, herri kirol desafio Uribiarte auzunean. Talde bi: harriari 20 altzaldi, 8 kilometro galapan eta 45 minutu sega beharretan.

20:00etan, Luhartz taldea plazan.

## Maiatzak 6, domekea

10:00etan, IV. Ganadu eta Artisau Azokea.

11:30ean, erraldoiak. Beti Jai Alai erraldoi taldea, Birakai Sestaoko konparsa eta Areatazko erraldoiak.

12:30ean, baskulearen apustua.

13:30ean, amaierea eta zozketea.

## AREATZA

Euskaraldia  
aurkeztuko da  
Areatazan

## Erredakzioa

Areatazko Euskera Batzordeak antolatuta, *Euskaraldia: 11 egun euskaraz* ekimenaren aurkezpena maiatzaren 4an, arrastiko 18:30ean, Udala Aretoan izango da Karmelo Ayestaren eskutik. Euskal Herri osoko herri eta eskualdeetan aldi berean egingo

dan euskaldunen aktibazio ekimena da *Euskaraldia*, eta Areataz be, bat egingo dau honegaz. Zemendiaren 23tik abenduaren 3ra arte izango da.

Egitasmo hau bideratzeko, behar beharrezkoa da herritarren partaidetza eta Areatazko Euskera Batzordeak partaidetza bultzatzeko eta ekimenaren nondik norakoak ezetuteko aurkezpena joateko animau gura dauz billaroztarrak. *Euskaraldian* parte hartzea ebazten dabenak *Ahobizi* eta *Belarriprest* rolen bitartez egingo dabe. *Ahobizi* eta *Belarriprest*-en izen emotea uda-goienean hasiko da.

## LEMOA

## Arantxe auzuneko jaiak

## Erredakzioa

Herri eta auzuneetako jaietan lehiaketa gastronomikoak ezin dira faltatu, eta Lemoako Arantxe auzunean mundu guztiak hainbeste maite dauan patata tortilleak izango dau protagonismoa. Gaubean, Zornotzako Kittu musika taldeak ipiniko dauz jantzan Arantxera hurreratzaren diranak. Maiatzaren 5ean ospatuko dabez jaiak.

Txupina goizeko 11:30ean botako dabe eta sorpresea egongo dala agindu dabe jai batzordekoak. Ondoren, iturrirako ibilbidea egingo dabe musikeagaz lagunduta. Bazkari herrikoia eta bazkalostean, 16:30ean Briska Txapelketea egongo da. Tortillak 20:00etan aurkeztu behar izango

dira eta Kittu taldearen kontzertua ordubete beranduago hasiko da. Egun osoan zehar umeentzako jolasak egongo dira.



## ARANTZAZU

Ahalduntze personal eta  
kolektiborako autodefensa  
feminista ikastaroa

## Erredakzioa

Arratiako Andren Jabekuntza Eskolako programazioaren barruan, Arantzazuko Udala antolatuta, Maitena Monroyk *Autodefensa feminista* ikastaroa emongo dau Arantzazuko Kultur Gunean, maiatzaren 11 eta 12an.

Ikastaroak saio bi izango ditu, maiatzaren 11n, barikuan, arrastiko 17:00etatik 20:00etara izango da lehenengo, eta hurrengo egunean 10:00etatik 13:00etara bigarrena. Izena maiatzaren 4a baino lehen emon behar da Arratiako Udalen Mankomunitateko (AUM) Bardintasan Arloan edo

udaletxeetan.

Ikastaroan, andrak jasaten daben eraso mota desbardinai aurre egiteko estrategiak eta tresnak landuko dabez partaideak alkarregaz.





## ARRATIA

# Edadekoen kontrako tratu txarrai buruz ohartarazo dabe adituak

### Erredakzioa

Etika eta adinekoen tratu ona topaketea antolatu eben Arratiako Egoitzak eta Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM) apirilaren 25ean. Bertan, Lourdes Zurbano-beaskoetxeak, Bizkaiko Foru Aldundiko Balorazio eta Orientazio Zerbitzu buruak (Dependentzia eta Ezgaitasuna) eta Marije Goikoetxeak, Deustuko Unibertsitateko Osasunaren Psikologiako Bioetika, Etika Profesionala eta Psikologia Esku-hartzeetako irakasleak, edadekoen kontrako tratu txarren gainean egin eben berba.

Oin dala gitxi Eusko Jaurlaritzak egindako ikerketa baten arabera, 65 urtetik gorakoen %80 modu autonomoan bizi da, asebeteta dago eta bere lehentasunen arabera bizi da. Ha-ta guzti be, edadekoen kontrako tratu txarren arazoa errealidadea da, eta ha aurreikusit, antzeman eta kontra egiteko tresna eraginkorrek behar dira.

Igorren egindako jardunaldian, hainbat lagunek hartu eben parte; horreen artean, erretirautako personak, profesionalak, jagoleak, egoiliarren senideak, eta erakundeetako arduradunak; besteak beste, Gurutze Etxebarria eta Iñá-



Etika eta adinekoen tratu ona jardunaldia.

ki Barrenetxea, AUMko presidenteordea eta gerentea, hurrengo hurrengo.

### Tratu txarren arriskua

Deustuko Unibersidadeko irakasleak esan ebanez, "Euskadin, edadekoen ekarpena zaintzan edo sendagaietan gastau ahal dabena baino handiagoa da". Lobak zaintzen, batez beste, egunean 7 ordu emoten dabe, eta belanaldi barriari balio positiboak helarazoten deuteez, beste ekarpen batzuen artean. "Ha-ta guzti be, tamalez, gizartearen daukien irudia ez da ona, eta zama, arazoa, pasibotasuna, gaixotasuna, gastua, sufrimentua eta dependentzia

lango terminoakaz lotu ohi doguz", adierazo eban.

Bere aldetik, Lourdes Zurbano-beaskoetxeak esan eban Euskadi aurrendari dala adinekoen aurkako tratu txarren kontrako neurriak hartzean, Eusko Legebiltzarrak 2013an onartutako tresnari eta antzekoai esker, tratu txar asko aurreikusit eta antzematen dirala.

Foru arduradunak azpimarratu eban "arriskuak gora egiten dabela dependentzia egoeran dagozan personengan, batez be andrangan, eta komuniketako zailtasuna daukienengan". Zurbano-beaskoetxearen ustez, "azken helburua bizi-proiektu propio bat lagundu eta errespetetea da".

## DIMA

# Azokea eta euskal jantzak herrigunean hilaren 13an



### Erredakzioa

Maiatzaren 13an, Ganadu, Nekazaritza eta Eskulangintza Azokea eta Dantzari Txiki Eguna batera egingo dabez Diman.

Udalak eta Dimako ganaduzain alkarteak antolatu dabe Ganadu, Nekazaritza eta Eskulangintza Azokea, urtero lez, ganadu azoken sasoi bete-betean. Bertan, Dimako ganadua egongo da ikusgai; batez be, behiak, ahuntzak eta behorrak, eta bertoko eta kanpotik etorritako baserritarrak salduko ditue euren produktuak. Igaz 35 postu egon ziran eta beste horrenbeste espero dabez aurten be antolatzaileak. Inguruko artisauen lanak be erosi ahal izango dabez bertaratutakoak.

### Dantzari Txiki

Jai giroa, Gaztebarri Dantza Taldeak antolatutako Dantzari Txiki Eguna ipiniko dau.

Dimako jantzi txikierakaz batera, Igorreko Arantzarte jantzi taldekoak, Zeanuriko Arrikibar taldekoak eta Berrizeko Iremiñekoak egongo dira, inguruetako beste jantzi talde batzuen artean.

Jantzi txikien egunari hasiera 10:30ean emongo deute jantziari harrerea eginaz eta hamarretakoagaz. Orduete beranduago hasiko da kalejirea eta 13:00etan izango da alardea plaza. Bazkaria 14:00etan izango da eta bazkalostean, 15:30ean, erromeria egongo da Ein Go taldeagaz.

**Zugaitik BEGITUTen dogu**  
A.P.I. 495  
[www.inmobiliarialarrea.com](http://www.inmobiliarialarrea.com)  
Lehendakari Agirre, 8 behea  
48140 Igorre  
Tfnoa: 94 631 80 04

**Olaetxe**  
Graduazinoak  
Ikusmen terapia  
Ikusmen gibusua  
Begiko tentsioa  
Lentillen adaptazinoak  
Kiroletarako betaurrekoak  
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)  
T. 94 657 70 03 - [olaetxeopirka@hotmail.es](mailto:olaetxeopirka@hotmail.es)

**Ugatxa**  
taberna  
Ugarana kalea, 8  
48141 Dima  
T. 946 129 460

**Avia guztira**  
Laguntza psikodukaldua  
Laguntza  
Fisioterapia  
Psikomusikoterapia  
Laneri arazak  
eta askoz gehiago

**Kili~Kili**  
Amoia eta Puertuko  
Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)  
Tel.: 94 673 63 81

**Bizkaifisios**  
IGORRE FISIOTERAPIA ZENTROA  
Elexalde, 4  
48140 Igorre  
94 631 55 08  
[igorre@bizkaifisios.com](mailto:igorre@bizkaifisios.com)  
ANDRA MARI KLINIKEA  
Fontzi Zabala, 1  
48960 Galdakao  
94 457 23 64  
[galdakao@bizkaifisios.com](mailto:galdakao@bizkaifisios.com)

**ZURE ZERBITZURA**  
✓ Avia guztira 176 gasolindegil  
✓ Avia Adenor 35 gasolindegil  
ADENOR Igorre  
[www.aviaenergias.es](http://www.aviaenergias.es)

**GURE BIHOTZA**  
✓ Operazio-Zentroa  
Bilboko Portu Autonomoan



**SAN ISIDRO ZEANURIN**

# Ganadu azokea eta beste ekintza ugari Zeanuriko sanisidroetan

Oin dala hamabost urte ganadu azoka asko egoten ziran urteko sasoi honetan herri askotan, San Isidro eguneko inguruko astegoienetan batez be. Horregaitik, Zeanuriko Udalak ganaderuakaz batera, San Isidro egunean bertan ganadu azokea egitea ebatzi eban.



2016ko San Isidroak.

Argazkia: Jon Urutxurtu.

**Erredakzioa**

Sano arrakastatsua izan zan ebatzia eta San Isidro eguneko ganadu azokea jentez gainezka egoten da. Herriko jente askok jai hartzean dau egun horretan eta inguruko herrietako jentea be hurreratzen da Zeanurira. Azokea goizeko 10:00etatik 14:00ak ingurura arte izango da.

Baserriko lanak be erakutsiko dira azokan. Ardiai ulea moztuko deutse Mikel Etxebarriak, Enrike Etxebarriak gaztaiak egingo ditu eta Jakoba Errekondok ortua eta landareai lotutako zalantza

guztiak argituko ditu. Zeramika tailerra be eskeiniko da azokan. Gainera, aurten, Kalitatea Fundazinokoakaz batera eta ganaderuak eskatuta, artxo txuleta pintxo eta sagardo dastaketea be egongo da.

Ganadu azokako protagonista nagusiak behiak izaten dira; batez be limusina, pirenaiko eta asturiar errazakoak, ederrenak Zeanurin egongo dira ikusgai. Behorak eta ardiak be izaten dabe publikoaren interesa eta aurten be ez dira faltauko. Abererik ederrerenentzako sariak 13:30ean bananduko dira plazan.

San Isidro eguneko, ez da bakarrik ganadu azokea, baserriko beste produktu asko erosi daitezke bertan. Izan be, baserriko produktuen ekoizleentzako 24 postu egongo dira eta artisautentzako 16 inguru. Ekoizleen artean, Makea herriko batzuk egongo dira, iparraldean sortutako produktuak saltzeko. Izan be, Zeanuri Lapurdiko Makea herriagaz dago senidetuta eta aurtengo konbidauak dira. "Aurten Makeakoak konbidautu dagoz. Oin dala urte asko hango abadea zana, senidetuteko indar handia egin eban, etorten zan urtero gaztaiak saltzean. Herri txikia da, baina mermeladak, gaztaia eta tea ekoizten dabe" azaldu deutse BEGITURI Eider Ajuriagerra zinegotziak.

Arrastian, 17:30ean, idi probak eta Arrikibar jantza taldeko umeen jantzak egongo dira.

**Aurreko zapatuan jai**

San Isidro eguna martitzena da-

nez, aurreko zapatuan be ospatu gura dabe zeanuriztarrak eta horretarako egun osoko egitaraua prestatu dabe. "Igaz hasi ginan herri bazkari bategaz eta erromeria ipini genduan. Aurten, egun hori be apur bat indartuteko egun osoko egitaraua prestatu da" dino Ajuriagerrak.

Goizean, udaletxe azpiko gelan Zeanuriko pintura taldearen erakusketea egongo da hilaren 12an eta San Isidro egunean. Atoan-ek eta Joko Alaik lagunduta, ginkanea egongo da, baita umeentzako puzgarriak be. 14:30ean herri bazkaria eta trikitilariak girotuko dabe bazkalostea. 16:00etan, Bizkaiko pala eta fronteniseko banakako finalak jokatuko dira. "Bizkaiko Federazinokoak eskatu deutse Zeanuriri finalerako sedea izateko. Maiatzaren 12 eta 13an izango dira finalak".

19:00etan, Abesbatzen Uda-barriko kontzertua be egongo da maiatzaren 12an. Zeanuriko Abesbatzak, Sopuertako Atxape Abesbatzak eta Amorebieta-Etxanoko Xuxurlariak Abesbatzak kantatuko dabe Andra Mari eleizan.

Egunari amaierara emoteko, 23:00etan hasita, Gozategi taldeak animauko dau gauba.

**Maiatzaren 12ko jaiari amaierara emoteko, 23:00etan hasita, Gozategi taldeak animauko dau gauba**



2016ko San Isidroak.

Argazkia: Miren Idigoras.



**ALKIZABAL**

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19  
Amorebieta - Lemoa errep.  
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06  
Fax. 946 31 20 26  
alkizabal@alkizabal.net




[www.alkizabal.net](http://www.alkizabal.net)











**ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK**

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKURUA ETA SALMENTA



**GALDEKETA IGORREN**

# Igorreztarrak, maiatzaren 6an herri galdeketa parte hartzera deitu ditue

Maiatzaren 6an, Gure Esku Dago erabakitze eskubidearen aldeko plataformeak herri galdeketa egingo dau 23 herritan, tartean Igorren. Igorreko Gure Esku Dagoko taldeak, Igorren Ebatzi izeneko alkarteak, herri galdeketa parte hartzera deitu dauz herritarrek. Igorren, 4.290 lagun dagoz errolatuta, hamasei urtetik gorakoak 3.353 dira eta danak deituta dagoz "Euskal estatu bateko herritarra izan gure dozu?" itaunari erantzutera.

**Erredakzioa**

Domeka horretan botoa emon ezin dabenak, aukerea izango dabe botoa emoteko aurreko eguen edo barikuan; hau da, maiatzaren 3 eta 4an. Maiatzaren 3an, Olabari auzunean, kiroldegi inguruan egongo da botoa emoteko aukerea 16:30etik aurrera. Hurrengo egunean, barriz, Agirre Lehendakaria kalean izango dira Igorren Ebatzikoak, terraza eta tabernen inguruan. Jasotako botoak, maiatzaren 6an sartuko dira hautestontzian horretarako dagoan protokoloari jarraituz.

Botoa emoteko Igorren errolatuta egon behar da eta karneta eroan. Gauzak modu legalean egin dirala bermatzeko; hau da, inork ez daukala birritan emon botoa edo emoilea Igorren dagoala errolatuta bermatzeko, Berme Batzordea egongo da. Alkartekoak ez diran persona bi egongo dira zeregin horretan.

Herri galdeketa egunean, maiatzaren 6an, 09:00etatik 20:00etara emon ahal izango da botoa. Kultur Etxeko parkean karpa bat ipiniko dabe eta han, "Euskal estatu bateko herritarra izan gure dozu?" itaunari erantzuteko baiezko botoa, ezezkoa edo zuria emon ahal izango dabe igorretarrak. Antolatzailak 21:00ak aldera emaitzen barri emotea espero dabe.

**Jai giroan**

Gure Esku Dagoko ekimenaren herri galdeketa guztiak lez, Igorrekoa be jai giroan egingo da. Arra-



**Aprilaren 22ko alkate eta zinegotzien babes ekitaldia Igorren.**

tiako beste herrietakoen babes eukiko dabe, eta horreek Igorrera heltzean diranean kalejireia egingo dabe herritik zehar, 12:30ean, Kultur Etxeko parkera joan aurretik. Han, ekitaldia egingo dabe eta ondoren, animazioa egongo da herrian. "Sorpesak egongo dira eta jai giroan egingo da. Benetan be egun ederra izango da" dinoe antolatzaileak.

**Herritar guztiengana ailegatako erronka**

Arratian herri galdeketa parte hartze handia izan dabe. Diman, hamasei urtetik gorakoen %63,42k hartu eben parte 2016ko zemiendiaren 27ko galdeketa; Zeanurin %55,16k, 2017ko maiatzaren 7an, eta Areatzan, partaidetza %45,35koa izan zan, igazko zemiendiaren 5ean.

Dana dala, bost mila biztanlerak heltzean ez dan arren, Igorrek

herri handien erronkai egin behar deutse aurre. Izan be, jente guztiarengana heltzea gatx ikusten dabe Igorren Ebatzi taldekoak. Herri txikerretan danak ezutzen dabe alkar eta ahoz ahokoa nahikoa izaten da danak jakitun egoteko, baina Igorren jente guztiarengana heltzeako beste modu batzuk erabili behar dira eta ez dago jakiterik ea danak jakinaren gainean dagozan, ea herritar guztiak dakien "M6 hori zer dan".

Eta itxura baten antzekoak izan arren, herri konsultea antolatuteak ez daukala hauteskunde arruntakaz zerikusirik dinoe Igorrekoak. Laguntza gitxi, aurrekonturik ez eta gatxa da leku guztiara heltzea. "Hauteskundeak, telebistan eta medio guztiaren agertzen dira, postaz emon daiteke botoa aurretik, propaganda etxera heltzean da...". Galdeketa martxan ipinteko barriz, "Iana, konpromisoa, ilusino

eta itxaropena" dituela dinoe.

Beste errealdade bat izan arren, Kataluniako herri galdeketa batz besteko partaidetza, guztira %25ekoa izan zan Igorren Ebatzik emondako datuen arabera.

**Zeanurin galdeketaaren urteurrena**

Zeanurin igazko maiatzaren 7an egin eben herri galdeketa eta urteurrena ospatzeko ekitaldia egingo dabe maiatzaren 6an. Ekitaldia 12:30ean hasiko da eta bertan mezua irakurri, koplak musikatuk kantau eta jantziak jantzi egingo dabe. Talo jana eta sagardogaz amaituko da ekitaldia.

**Giza katea**

Gure Esku Dagok Donostia, Bilbo eta Gasteiz batuko dituan giza katea egingo dau bagilaren 10ean "Eman eskua etorkizunari" goiburuean. Arratiari lau kilometro

tokau jakoz, Erletzeko errotondik Zornotzaraino eta 2.000 persona inguru behar dira horretarako. Giza katean izena emoteko, Gure Esku Dagoko herriko alkarteak dabil herritan informazioa emoten.

Holan egin eben Igorren, aprilaren 22an zinegotzien babes ekitaldian, eta maiatzaren 6an be mahai bat ipiniko dabe informazioa emon eta izenak hartzeako. Giza katean parte hartzeako alde aurretik emon behar da izena, autobusak eta antolatu behar diralako. Izena emotean, zapi bat emoten jako partaideari 5 euroren truke.

Areatzako Gure Esku Dago taldeak giza kateari buruzko informazioa emoteko mahaia ipinten dau barikuetan. Mahai horretan kartoizko siluetaz osotuta kate sinbolikoa egin gura dabe eta eskulan tailerrak be egiten ditue.

Zeanurin, maiatzaren 4 eta 6an, ipiniko dabez informazio mahaia plazan.



|  |   |   |
|--|---|---|
|  | <b>JB Eguzkiza Meabe HI</b><br>Tel.: 94 631 32 28 Lemoa | <b>Ikastola Arratia HI</b><br>Tel.: 94 673 90 65 Artea      |
|  | <b>Ugarana HI</b><br>Tel.: 94 631 55 32 Dima            | <b>Arratia BHI</b><br>Tel.: 94 673 62 37 Igorre             |
|  | <b>Zubialde HI</b><br>Tel.: 94 648 06 82 Zeberio        | <b>Areatzako Herri Eskola</b><br>Tel.: 94 673 90 93 Areatza |
|  | <b>Zeanuri HI</b><br>Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri         | <b>I. Zubizarreta HLHI</b><br>Tel.: 94 673 60 22 Igorre     |
|  |   |   |



## IBILALDIA

## Zeanurín, errotarik errota

Jon Urutzurtu

Maiatzaren 6rako prestatu dau Joko Alai Alkartek 2018ko Zeanuriko Erroten Ibilaldia. Aurten hamahirugarren edizinoa beteko dau oinezko martxa honek eta antolatzaileak adierazoten dabenez helburuak hasikerako berberak dira. "Alde batetik, herritarrai zein kanpotik hurreratzen diran bisitariak Zeanuri eta bere auzoak ezetuten emotea; bestetik, Zeanuriren historian errota izan daberen garrantzia ezetu arazotea, eta atzenik, domeka goiza natureagaz hartu-emonetan eta kirola eginez pasetako aukerea eskeintzea".

Ez dira gitxi, izan be, herri honetan ezetuten diran edota han-herrenka azaltzen diran errota edo erroten arrastoak, guztira hamazortzi, danak hidraulikoak. Ibilbidean zehar bederatziren ondotik pasauko dira ibiltariak eta bitan, Errotabarrin eta Ibartutxin, sartu-urtena egiteko aukerea izango dabe. Aurten Olabarrikora ezin izango da sartu obratan dagozalako.

**Ibilbide bi: luzea eta laburra**

Ibilbide bi prestatu dabez antolatzaileak, bata luzea, 18 kilometrokoa, eta bestea, laburragoa 12 kilometrokoa, jan-edana bananduko dan lekutik helmugara zuzentzen dana.

Urtekerea herriko plazan izango da goizeko 09:00etan. Udaletxearen aurretik abiatuta, Altziber eta Errotabarrin pasauko dira. Errotabarrin 2015ean zaharbarritu eben Manterolatarrak eta sartu-urtena egin ahal izango da. Undurragako urtegiaren ertzetik jarraituko dabe parte-hartzaileak eta urtegia atzean

itxi bezain laster, Barrengoerrota aurkituko dabe, Beretxikorta errekatxoaren ertzean. Agarre izeneko baserrien ingurutik aurrera eginaz, Undurraga auzunera jaitsiko dira Ibartutxiko errotarako bidea hartzeako. Hemen, ateak zabalik izango dira, eta gura dabena kuku bat egin eta errotea lanean ikusi ahal izango dabe. Ibartutxitik Lanbreabeko errotera, eta hemendik barriro Undurragako urtegiaren ertzetik ekingo deusie bideari, oingoan beste aldetik. Presatik 100 metro atxina, Alkiberren, indarrak barritzeko jan-edana bananduko dau Gastronomía Cantabricak. Aurrerantzean, lehenengo Otzerinmendi auzunean eta gero Uriben sartuko dira ibiltariak, eta Intxaurboko, Axpeko eta Zulaibargo erroten ingurutik pasau ostean, atzen kilometroa beteten hasiko dira. Helmuga baino 300 bat metro lehenago ibilbideko azken errotea azalduko da, Olabarrikoa, Zeanuriko plazara heldu eta ibilaldiari amaierara emon aurretik. Aurten ezin izango da bertara sartu obratan dagoalako.

Ibilbidea burutzerakoan, 18 kilometro eroango dabez oinetan ibiltariak, baina ziur ziteari erantzuteak mereziduko deusela, erroten ondare historiko-etnografikoa ezetuteaz gainera, udabarrian naturak azaltzen dauan koloreen sinfoniaz



Errotabarrin presea.

gozatzeko aukerea izango dabe eta.

**Errotabarrin eta Ibartutxiko errota**

Ibiltariak errota bitan, Errotabarrin eta Ibartutxin sartu-urtena egin eta errotea lanean ikusteko eta osotuten daberen atalak bertatik bertara ezetuteko aukerea izango dabe.

Errotabarrin errotea Otzerinmendiko kofradian dago. 1785ean eregi eben. Zeanuriko errotarik barriena da eta hiru harri ditu. Errota honetan, presa eta antepara lotuta dagoz konporta baten bidez, kaltze barik. Zeanuriko gainontzeko errotetatik bereiztuz, Errotabarrin errotapetik kaltze bat ateraten da, urak errekarara bideratzeko. 1975eko apirlean itxi eutsan lan egiteari eta atzen erroteria Andres Aldekoa "Ane" izan zan. 2015ean guztiz zaharbarritu eban Errotabarrin Manterola familiak.

Ibartutxiko errotea Ipiñaburuko kofradian dago. XIX. gizaldian burdinolea izan zan. Gaur egun harri bi badaukaz be, hiru harrigaz egin eban behar. Hirugarren harriak 1950erantza itxi eutsan lan egiteari. 1945ean erroteraren azpiko aldean turbina bat eta generadore bat jarri argindarra ekoizten hasi ziran Ibartutxin, eta 1978ra arte gitxi gorabehera Altzua, Ipiñaburu eta Undurragako baserri batzuetara saltzean eben elektrizidadea. Ibartutxiko erroteraren instalazioak guztiz zaharbarrituta dagoz, eta oindino, lantzean behin etxerako garia edo artoa eihotzen dabe jaubeak; horrez gainera, generadorearen bitartez etxerako argindarra be ekoizten dabe. Atzen erroteria Gabriel Larrazabal izan zan. Gaur egun Bitoriano, Satur eta M<sup>a</sup> Jesus bere seme-alabak dira jaubeak, eta errotea zaharbarritzeaz eta ingurua txukun-txukun mantenduteaz arduratzen diranak.

## TXIRRINDULARITZEA

## Emakumeen I. Klasikoa Zeberiotik abiatu eta Zeberion amaituko da

**Erredakzioa**

Maiatzaren 12an jokatu dan Emakumeen I. Klasikoa Zeberio-Ugao-Arrigorriaga, Bizkaiko Txapelketarako puntuagarria izango da. Lehenengo edizino honetan, Zeberiotik urten eta Zeberion izango dau amaierara lasterketeak. 2018, 2019 eta 2020 urteetan egiteko konpromisoa hartuko dabe hiru herri honek eta Ugao Txirrindularitza Elkarteak antolatuko dau. Amaia Estiballes, Zeberio Udalaren Berdintasun sailko teknikaria izan da probearen sustatzailea eta bera izango da lasterketako zuzendaria.

Kategoria desbardineko proba bi egingo dira. Kadeteak, 09:00etan urtegi dira 40 kilometro egiteko. Elite eta Juniorren txandea 11:30ean izango da eta Bizkaiko Txapelketarako puntuagarria izango da. Ibilbideak 92 kilometro ditu.

Lasterketa aurreko astean, Zeberio, Ugao eta Arrigorriagako udalak hitzarmena sinatu dabe hasikerako 3 urte honeetan konpromisoa beteko dabela bermatuteko.

**Ibilbideak**


Proba nagusia, Elite eta Junior lasterketea, Ermitabarritik urten eta Elizondoko amaituko da. Txirrindulariak Ermitabarritik urten eta Ugao-Miraballeserantza joango dira. Ugaotik, Arrigorriagara. Han, Lonbotik sartu eta zirkuitu bat egingo dabe herriko kaleetatik zehar. Ondoren barriro be Ugao-Miraballesera joango dira eta handik Zeberiorantza joko dabe Sarasolako gainetik igaroz Arterantza.

Arteatik Areatzara joango dira eta Karpoko zubian N-240ra urtegi dira Arrigorriagarantzako bueltako bidea egiteko. Zirkuitu hau birritan egingo dabe. Helmugea Zeberio Elizondoko gainean egongo da.

Kadeteak, Ermitabarritik gainetik urtegi dira, Ugao-Miraballesera joango dira eta handik Arrigorriagarantza. Arrigorriagan Lonbotik sartu eta zirkuitua egingo dabe herriko kaleetatik zehar. Barriro Ugao-Miraballesera eta handik Zeberiorantza joko dabe, helmuga egongo dan Elizondoko gainera helduz.

**Zeberio Berdintasun sailak bultzatuta**

Kirola eta jardura fisikoaren jendar-tearen aldaketaren eragileak dira eta andren eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen dabe Amaia Estiballes Zeberio Berdintasun Teknikariaren ustez, baina kirolean, gizon eta andren artean, desoreka handia dago. Emakumeen I. Klasikoaren helburuak, beste batzuen artean, kirolaren sustapen ekitati-boan parte hartzea eta andrazko kirolari erreferenteak izatea dira.



## FUTBOLA

## Derbira urtekerea eta andrak eta futbolaren inguruko mahai-ingurua Gorbeako Gurutzea Athletic Club Peñak antolatuta

**Erredakzioa**

Gorbeako Gurutzea Athletic Club Peñak urtekerea antolatu dau maiatzaren 12-13ko astegoienean Zubietan jokatu dan Liga Iberdrolako 30. jardunaldiko Real Sociedad eta Athletic-en arteko derbirako. Izena 691 529 748 telefonoan (Iker Zamakona) emon behar da hilaren 11 baino lehen. Bazkideak doban eukiko dabe urtekerea eta bazkide ez diranak 5 euro ordaindu beharko dabez.

Partidua atxaki hartuta mahai-ingurua be antolatu dau Areatzako futbolzale taldeak. *Emakumea eta futbola* izenburuko mahai-ingurua Beñat Zarrabeitiak gidatuko dau eta andrak eta futbola gaiaren inguruan jardungo dabe Athletic-eko jokalarri edo ordezkari batek, Errealeko beste batek, Arratia futbol taldeko beste batek eta Ane Urkiri Garako kazetariak. Hitzordua, maiatzaren 10ean da, arrastiko 19:00etan, Areatzako Udaleko Areato Nagusian.

**Urteroko asanbladea eta bazkaria**

Areatzako peñaren urteroko asanbladea Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan izango da maiatzaren 19an, 11:30ean. Bazkaria 15:00etan izango da eta izena emoteko atzen eguna maiatzaren 16a.



Igazko Arratia-Eibar partidua.

## FUTBOLA

## Arratiak bigarren postuan amaitu dau Euskal Ligan

**Erredakzioa**

Arratia andrazkoen futbol taldeak bigarren postuan amaitu dau ligea 72 puntugaz, Bizkerre liderrarengandik 8 puntura.

Apirilaren 22an jokatu eban atzenurren partiduan 3 eta 2 irabazi eban Erandioko Betiko Neskak taldearen kontra Urbietan. Apirilaren 28an Barakaldoren kontra jokatu atzen partidua osterara 3 eta 2 galdu eban Arratiak. Oin ligea amaituta Euskal Herriko Kopea jokatu eban hasiko dira arratiarrak. Bigarren egin arren Arratia ez da bigarren mailara igongo, lehenak bakarrik dauka eta

horretarako aukerea.

**Gizonezkoak**

Arratia gizonezkoen taldeak atzen partidu biak bardindu ditu. Apirilaren 21ean bana bardindu eban Sondikaren kontra eta apirilaren 28an hutsna bardindu eban Gatikaren kontra. Partidu biak Igozren jokatu ziran.

Datorren partidua hilaren 5ean 17:30ean jokatu dau etxetik kanpo San Pedro taldearen kontra Las Llanas futbol zelaian. 4 jardunaldi falta diranean ligea amaituteko Arratia bosgarren postuan dago sailkapenean 50 puntugaz.



## RAIDA

# Igorreko Udalak familian egiteko raida antolatu dau

### Erredakzioa

Arratia Raid taldearen laguntze-agaz, Igorreko Udalak, hiru ordu t'erdiko proba antolatu dau raid-a zer dan ezetuten emoteko maiatzaren 12an. Bertan, goizeko 10:00etan hasita, raid baten egiten diran disziplina guztiak egongo dira: bizikletea, trekkinga, orientazioa eta proba bereziak.

Raida, bikoteka edo taldeka egiten dan kirol mota bat da eta

orientazioa da bere ardatza. Igorrekoa familientzat, umeentzat eta hasi barrientzat pentsautu dago. Hau da, danontzat. Partaideak, hiru ordu t'erditan mapan markatu dagozan baliza-puntu gehien hartu behar dabez. Horretarako, mapa bateri jarraitu behar jako batzuetan bizikletan eta beste batzuetan galapan. Proba bereziak be badagoz. Izena maiatzaren 10era arte emon daiteke [arratiaraid.blogspot.com.es](http://arratiaraid.blogspot.com.es) webgunean.



## MENDIA

# Zeberio Harana mendi martxea maiatzaren 12an



### Erredakzioa

Maiatzaren 12an izango da Zeberio Harana mendi martxea. 50 km.ko luzeerea eta 3.300 metroko desnibela ditu ibilbideak eta partaideak 12 ordu izango ditue egiteko. Austarri Mendi Taldeak antolatutako martxa hau Euskal Herriko Iraupen Luzeko Ibilaldien Zirkuiturako baliagarria da.

Zeberio Harana mendi martxea,

hamaika mendi tontorretatik pasauko da. Izan be, partaideak Zeberio kirol plazatik urtengo dira goizeko 07:00retan, eta Murga (606 m.), Piku Bikotx (616 m.), Garai-gorta (662 m.), Aibelabe (638 m.), Arrugaeta (669 m.), Untzueta (770 m.), Artanda (550 m.), Upo (573 m.), Tontorrandi (522 m.), Mandoia (638 m.) eta Argiñaoko Atxatik (524 m.) pasauko dira, berriz be Zeberio kirol plazan amaituteko 50 kilometro egin eta gero.

### Izena emoteko

Proba honetan parte hartzeako 18 urte euki behar dira gitxienez. Izena [www.zirkuitua.com](http://www.zirkuitua.com) edo [austarrimendialdea.com](http://austarrimendialdea.com) webguneetan emon daiteke maiatzaren 9ra arte edo egunean bertan urten aurretik, plazak ez badira bete. Gehienez 300 pertsonak hartuko dabe parte.

Amaitukeran dutxa zerbitzua egongo da eta partaideak opari bana jasoko dabe.

## HERRI KIROLAK

# Herri kirol desafioa Areatzan

### Erredakzioa

Bi mila euro dagoz jokoan. Maiatzaren 5ean, arrastiko 18:00etan, Uribiarteko landetan, Mikel Amuriza eta Ibai Milikuak osotutako bikoa, Igor Agirregomezkorta eta Jaime Atxaren kontra neurtuko da hiru probaz osotutako desafioan. Egin beharreko lanak honek dira: hogei altzaldi 50 kiloko boleari, 8 km galapan eta 45 minutu bedarra ebaten.

Harria, 20 bider altzau behar dau talde bakotzak, taldekide bakotzak 10 bider. Gero, galapan, Ibai Milikuak eta Igor Agirregomezkortak egingo dabe. Lehenengokoa heltzean danean, bere taldekoa hasiko da bedarra ebaten. Mikel Amurizak desbrozadoreagaz ebagiko dau bedarra eta Jaime Atxak segeagaz. Bedarra ebaten hasten dan lehenengoak 45 minutu egingo dauz eta besteak geldituten dan denporea batera amaituteko. Bedar gehien ebaten dabenak irabaziko dau proba.

A colorful advertisement for Arratiako Musika Eskola. The background is blue with musical notes and instruments. The text 'Arratiako Musika Eskola' is at the top. Below it, 'IKASLE BERRIEN MATRIKULAZIOA' is written in large white letters. A box contains the text 'URTE BATETIK AURRERA ETA ADIN MUGARIK GABE'. Another box contains 'INFORMAZIOA:' followed by details about the school, including the location 'Infante kalea, 2. ARTEA', the schedule 'Astelehen, asteazken eta ostiralak 10:00etatik - 13:00 arte', the phone number '94 631 73 52', and the email 'arratia.musikaeskola@gmail.com'. It also mentions 'Matrikula ONLINE'. At the bottom, there's a photo of a young girl playing a violin, surrounded by various musical instruments. A large treble clef is on the right side. A footer box contains 'Matrikulazioa ONLINE: www.arratiakomusikaeskola.eu'.



## ZINEKLUBA

## Pariseko 1968ko maiatzaren ostean girotutako pelikulea

## Erredakzioa

Igorreko Zineklubak, Olivier Assayas-ek 2012an zuzendutako *Après mai* pelikula frantziarra dakar Lasarte Aretora maiatzaren 3an, iluntzeko 20:00etan. Veneziako jaialdian gidoi onenari saria jaso eban.

Filma, Parisen, 1970eko hamarkadearen hasieran girotuta

dago. Gilles, 18 urteko ikasle gaztea, 1968ko maiatzak ekarri dituan aldaketa sozial barriak markatuko eferbeszentzia politiko eta sortzailan murgilduta dago. Maitasun to-paketak eta aurkikuntza artistikoak, lehenengo Italiara eta ondoren Londonera eroango ditue Gilles eta bere lagunak. Biajean, ebatzi garrantzitsuak hartu beharko ditue.



## ANTZERKIA

**Ac-nun, un cipres en un desierto lanak zarratuko dau Areatzako I. Umorezko Antzerki Erakustaldia**

## Erredakzioa

Maiatzaren 12an, arrastiko 20:00etan, izango da AKKB antolatutuen dauan Areatzako I. Umorezko Antzerki Erakustaldiaren atzenengo saioa Udaletxeko Aretoko Nagusian. Zurrunka Teatroaren *Ac-nun, un cipres en un desierto* lanak zarratuko dau aurtengo erakustaldia. Eñaut Gorbea eta Mikel Larrea dira lan honen aktore eta gidogileak.

Lau komedia ikusi ahal izan dira Areatzako I. Umore Erakustaldian, euskeraz bi eta gaztelaniaz beste bi. Zezeilan, *Soltarlo al aire*; martian, *Nomofobikak*; apirlean, *Zer duzu Amy?* eta maiatzean, *Ac-nun, un cipres en un desierto*

izan dira lehenengo edizino honetan ikusi ahal izan diran lanak.

**Ac-nun, un cipres en un desierto lanaren sinopsia**

Ate biren artean, leku hotz, ilun eta existiduten ez diran itoginez betetako leku baten personaje bi alkartu dira. Danok igarotzen garran leku hori da. Agian momentu batez, agian betiko. Topalekua eta gogoetarako lekua da. Han, pentsamentuak pisua galtzean dabe, gure oinak hegan egiten ikasteko prestatzen dira eta bizitza harea bihurtzen da. Une polita bizitza beste aldetik ikusteko, umorez, barrea biziteko atxakiarik onena dala aitzu barik.



## LEHIAKETE

**Street dance protagonista nagusia Zu bai Zu-ko hirugarren kanporaketan**

## Erredakzioa

Barakaldoko Wild Dance Project jantza eskolako hiru talde aurkeztu ziran eta hirurak egin eben aurrera: bi finalurrera pasauko dira eta bestea zuzenean finalera Olatz Gorrotxategi epaimahaikoak Inizitu botoia sakatuta. Beste kanporaketa bat egongo da maiatzaren 5ean finalurre bi eta final handiaren aurretik. Finala bagilaren 10ean izango da.

Wild Kids izenpean eskolako ume txikerrenen taldea izan zan zuzenean finalera pasauko dana. Eskola honetako beste talde biakaz batera, Lizarrako Pole Danceko Dana eta Leonor, Galdakaoko jantza garaikideko talde bat eta Berastegiko Luis Eraso, bere motozeareagaz minutu batzuetan aulki bat

egin ebana han bertan pasau dira.

Igorretar batek be hartu eban parte: Franklin, 15 urteko jantzari autodidaketa. Dudakoa izan zan, Wild Project eskolako talde bategaz batera eta publikoak ebatzi behar izan eban. Barakaldokoak lortu eben pasea.



Barakaldoko Wild Kids taldea.

**Txema Montoia epaimahaian**

Txema Montoia Barakaldokoa, El Conquis-eko zuzendarietako bat be egon zan epaimahaian. Beragaz, Juanan Garcia, Olatz Gorrotxategi eta Maddi Lertxundi egon ziran. Hurrengo kanporaketan osotuko dira finalurreetako partaideak eta beste bat finalera zuzenean pasatuko aukerea izango dau Ismael Pereira "Isma" aurkezlearen zuzeneko paseagaz.

Kanporaketa galetako talentu handiko momentuak eskeintzen ditu Ismael Pereira "Isma"k. Hurrengo galan, maiatzaren 5ean, Gatiburen imitazioa egingo dau.

## URTEURRENA

**Liher eta Kokein taldeak Igorreko Kiñu Gaztetxean joko dabe urteurrenean**

## Erredakzioa

Lau urte bete dira aurten Kiñu Gaztetxeak lehenengoz ateak zabaldu ebazantetik eta urteurrena ospatuteko kontzertua egongo da maiatzaren 5ean. Liher eta Kokein taldeak joko dabe 22:00etatik aurrera eta ondoren Tibe eta Lekue dj-ak ipiniko dabe giroa.

Lide Hernando donostiarrak ipini eban Liher proiektua martxan eta 2015ean, *Arrazoi gutxi, denpora asko* izeneko maketea grabau. Taldeak beste album bi daukaz kalean, *Hauts* eta *Ten-*



*pluak erre*, hain zuzen be.

Kokein rock talde eibartarrak barriz, bost disko ditu kalean: *Kokein* (2002), *Lotuta egon arren* (2004), *Mundu margotu berri bat* (2007), *Izan* (2012) eta *Lurpekharia* (2014).

**Pablo Hasel maiatzean**

Maiatzaren 25ean, Pablo Hasel rap musikariaren kontzertua egongo da gaubean Gaztetxean. Aurretik, *Errepresioa*, *kartzela* eta *antifaxismoa* berbaldian hartuko dau parte Jon Iurrebaso eta Carlos Fernandez Salhaketako kideagaz batera.

## BERTSOLARITZEA

**Amaiur Atxa irabazle Lemoan**

## Erredakzioa

Apirilaren 25ean jokatu zan Lemoan Bizkaiko Eskolarteko Txapelketaren laugarren eta atzen kanporaketa.

Bertan, Arratiako sei gazte neurtu ziran; Amaiur Atxa, Maddi Zabaló, Maria Atutxa, Urko Iurrebaso, Oier Mendiolagoitia eta Unai In-txausti. Amaiur Atxak lortu eban finalerako pasea.

Lau kanporaketetan puntu gehien lortu dituen bertsolariak finalera izango dira. Finala, maiatzaren 6an jokatuko da Balmasedan. Egun osoko jaia izango da. Goizean 10:00etan, idatzizko finala antzokian eta 11:30ean, bat-batekoa Klarret Antzokian jokatuko dira. Arrastian, 17:30ean, Bizkaiko Bertsolari Txapelketako saioa egongo da, Udabarriko sailkapen faseko saio bat.

Euskal Herriko bat-bateko finala bagilaren 9an izango da Saran. Bertsosale Elkarrekin eta Ikastolen Elkarrekin antolatutuen dabe txapelketea, 15 eta 18 urte bitarteko gazteentzat. Gazteak jentaurrean kantau ahal izateko guneak eskeintzeko helburua dauka Eskolarteko Txapelketeak.

**Bizkaiko Bertsolari Txapelketea**

Illart Gumuzio Igorrekoak Bizkaiko Bertsolari Txapelketako Udabarriko faseko Ondarroako saioan parte hartu eban apirilaren 22an eta bosgarren egin eban.



## JAIALDIA

# Izaro kartelburu Lemoa Kustik Fest jaialdian

### Erredakzinoa

Maiatzaren 12an, Udalak antolatuta, Lemoako musika akustikoko jaialdia izango da. Sei artistak zabalduko dabe euren musika herrian. Izaro, Ekiza, Inun, Keu, Liv Wallace eta Maren dira artista horreek. Lemoa Kustik Fest 2017an sortu zan eta 600 persona biltzea lortu eban lehenengo edizinoan.

Bigarren aldi honetan, kaleko kulturearen inguruko esperientzia ekarri gura izan dabe jaialdira. Sei kontzertatik hiru eskolearen estalpe-inguruan izango dira eta food truck batzuetako eskeintza gastronomikoa dastatzeko aukerea egongo da. Gainera, Boga, Etxeandia, Txorierrri Garagardoa eta Urban Beer, Euskal Herriko artisaugaragardoen erakusketea be egongo da.

### Sei kontzertu

Marenek hasiko dau jaialdia,

eskolako aterpean, eguerdiko 12:00etan, bere pop leun eta intimisteagaz. 13:30ean, Liv Wallace rock klasikoan bersinoak joko ditu akustikoan. Arrastiko 16:00etan, Keu Agirretxeak bere gitarreagaz hasiko dauz arrastiko kontzertuak. Honek be eskolako aterpean joko dau. Ondoren, 17:30ean jaialdia Inzunzako herrigunera mobiduko da eta Arlo nagusia plazan, Inunek, Bihotz Gorospe arratiarrak lagunduta, kontzertu epel eta dotorea eskeiniko dau. Ekizak, Willis Drummond taldeko abeslariak, amaituko dau aire zabalean egindako kontzertu saila 19:30ean anbulatorioko plazan, bere bakarkako proiektu interesgarria defendiduten.

Egunari amaiera Izarok emongo deutso, 22:00etan, kiroldegian. Kantautore mallabiztarrak, Eason izeneko estudioko bere bigarren diskoko kanta joko ditu.



Izaro abeslaria.

## KULTURA ASTEA

# Itxaro Borda eta Itsaso Gutierrez izango dira Lemoako Kultura Astean



Itxaro Borda.

### Erredakzinoa

Lemoako Memoria eta Kultura Astea maiatzaren 7tik 11ra izango da. Memoriari jagokonean, Euskal Memoria Fundazioaren *Gogoan hartzeko izenak* erakusketea egongo da ikusgai aste osoan eta IPES alkarteak egindako *Gernikaren egiak*. Oroimen biziko herria dokumentala proiektuak da eguenean. Kultureari jagokonean barriz, Itxaro Bordak *Mugak/fronteras* proiektuaren barruan egindako *Hots hiru ahots bakarrean* testua aurkeztuko dau Itsaso Gutierrezen musikearen laguntzeagaz. Eguaztenean izango

da hori eta Lemoako Narrazino Lehiaketako sari banaketea egongo da gero. Umeentzako musika tailerrak, serigrafia tailer ibiltariak eta kometa tailerrak osotuten dabe asteko kultura eskeintzea. Zapatuan, Lemoa Kustik Fest musika akustikoko jaialdiak, zaratuko dau astea.

### Egitaraua

#### Maiatzak 7, astelehena

19:00etan, Euskal Memoria Fundazioaren *Gogoan hartzeko izenak* erakusketearen aurkezpena udaletxeko pleno aretoan. Erakusketea hilaren 11ra arte, egunero udaletxeko ordutegian

eta berbaldiak dagozan arrastietan udaletxeko pleno aretoan.

#### Maiatzak 8, martitena

18:00etan, umeentzako kontzertu-tailerra *Musikea ulertzeko eta maitatzeko bide barria* Trakamatrakaren eskutik ludotekan.

#### Maiatzak 9, eguaztena

19:00etan, Udalak antolatuta, poesia musikatu *Hots hiru ahots bakarrean*. Itxaro Borda eta Itsaso Gutierrez musikaria Elizondoko Kultur Gunean. Ondoren, VII. Narrazino Lehiaketako sari banaketea.

#### Maiatzak 10, eguena

Eskola ordutegian, Perkusino erakusketea eta tailerra eskolan. 19:00etan, Udalak antolatuta, ikus-entzunezkoa *Gernikaren egiak*. Oroimen biziko herria eta barriketaldia Ibon Menika eta Haritz Petralandagaz udaletxeko pleno aretoan.

#### Maiatzak 11, barikua

17:00etatik 19:00etara, JB Eguzkitza Meabe Ikastetxeko Guraso Elkarrekin antolatuta, kometa tailerra eskolako aterpean. 20:00etan, Seripoteoa, serigrafia eta poteoa Kodigo tabernatik hasita, Torontileren eskutik.

#### Maiatzak 12, zapatua

12:00etan hasita, Lemoa Kustik Fest Udalak antolatuta. Maren, Liv Wallace, Keu, Inun Bihotz Gorospegaz, Ekiza eta Izaro.

#### Maiatzak 17, eguena

19:30ean, Arratiako Musika Eskolako ikasleen kontzertua eleizan.

## DUNBA

# Gure itsasoa

### Arteko 4 eta 5 urteko ikasleak

Aupa lagunok! Arteko eskolako 4 eta 5 urteko ikasleak gara eta egin genduan itsasoko proiektuaren inguruan idatziko dogu.

Gure asmoa gela barruan gu sartzeako moduko itsaso bat egitea izan zan eta holan egin genduan. Horretarako, lehenengo gela barruan leku apropos bat topau eta neurketak egin ostean, gure itsasoa egiten hasi ginan.

Itsasoko goiko aldean, Lekeitioko moduko itsasontzia gure argazkiakaz, argidun faroa, balea, txoriak, eguzkia... ipini genduzan eta itsasoko beheko aldean, manta arrainak, itsas zaldiak, arrain zapo abisalak, marrazo zuria, algak, hariak... beste gauza batzuen artean. Proiektuan zehar, asko izan dira



itsasoa eta bertako animalen inguruan ikasi doguzan gauzak. Badakizue eraztun urdineko olagarro arriskutsuen tamainua sano txikia dana? Eta megalodonak oin dala urte asko eta asko itsasoan bizi ziran animalia arriskutsuak zirana?

Talde behar handia egin behar izan dogu gure itsasoa aurrera aterateko! Normala dan moduan, hainbat zalantza eta arazo sortu jakuzan bidean, baina danon artean urtenbidea topau eta aurrera atera genduzan.

Zein gustura egon garan danok proiektu honetan murgilduta! Emaizta ikustea besterik ez dago, begiratu gure gelako itsaso zabal ederra! Gustetan jatzue?



## AGENDEA

## MAIATZAK 2

## AREATZA

11ra arte, Haurreskolan matrikuletako epea.

## IGORRE

Hilaren 10era arte, Arratia Raid ertainean izena emoteko epea zabalik.

Hilaren 14ra arte, Iñaki Markaidaren *Analogikotik digitalera* erakusketea.

Hilaren 31ra arte, Euskaltzaleen Topaguneak antolatutako dauan Irakurri, Gozatu eta Oparitu kanpainia.

## LEMOA

Hilaren 25era arte, Euskal Jairako txartelak udaltxearen salgai.

## ZEANURI

Hilaren 6ra arte, Gorbeia jubilatuen alkarteak hilaren 9rako antolatu dauan urtekeran izena emoteko epea. Mirandaola, Ordizia eta Oñatira.

## ZEBERIO

Hilaren 9ra arte, Zeberio Harana 50 kilometroko mendi marxan izena emoteko epea zabalik [www.zirkuitua.com](http://www.zirkuitua.com) edo [austamenditaldea.com](http://austamenditaldea.com) webgunean.

## MAIATZAK 3

## IGORRE

16:30etik aurrera, Igorren Ebartzik antolatuta, herri galdeketa alde zaurretiko botoa emoteko aukerea Olabarrin.

20:00etan, zinekluba, *Après mai* (Olivier Assayas, 2012). Lasarte Aretan.

## ZEBERIO

Santa Kurtze jaiak.

## MAIATZAK 4

## AREATZA

18:30ean, *Euskaraldia: 11 egun euskaraz* ekimenaren aurkezpena Udal Aretan. Hizlaria: Karmelo Ayesta.

18:30etik 20:00etara, Giza katerako informazio mahaia eta tailerra plazan.

## IGORRE

16:30ean, Igorren Ebartzik antolatuta, herri galdeketa alde zaurretiko botoa emoteko aukerea, Agirre Lehendakaria kalean.

## ZEANURI

GEDk antolatutako bagilaren Giza katearen

gaineko informazioa emoteko mahaia plazan.

## MAIATZAK 5

## AREATZA

11:00etan, Santikurutzera igoera; 12:00etan, mezea; 13:00etan, kalejirea Areatzako Bandeagaz; 14:00etan, Gisadu eta Paella Lehiaketaren aurkezpena Karpon; 14:30ean, bazkari herrikoia (bakobak berea eroan). Osteen trikitaliak, Hala Dzipoko lagunak; 18:00etan, herri kirol desafioa Unbiarten; 20:00etan, Luhartz taldea plazan.

## DIMA

20:30ean, Azken Gaua Infernua. András, Pandemia, A.D. eta Hell Light taldeen kontzertuak Abaroa Aretan.

## IGORRE

20:00etan, Zu bai Zu Lehiaketako kanporaketa Lasarte Aretan.


22:00etan, Liher eta Kokein taldeen kontzertuak Ondoren Tibet eta Lekue dj-ak. Kiñu Gaztearen.

## LEMOA

Arantzako jaiak. 11:30ean, tupinazoa sorpreseagaz; 11:45ean, iturria ibilbide musikatu; 14:30ean, bazkaria; 16:30ean, Briska Txapelketa; 20:00etan, tortillen aurkezpena; 21:00etan, Kittu taldearen kontzertua. Egunean zehar jolasak.

## ZEBERIO

09:00etan, Untzuetan Nafar Gaztelua ekimenak



## Eskola jazarpenaren gaineko antzezlanaren Igorreko Kultur Etxean

Tantaka Teatroak, *Soka* antzezlanaren ekarriko dau Igorreko Lasarte Aretora maiatzaren 12an, arrastiko 20:00etan. Iñaki Rikartek egingo dau protagonista papela, Mikel Gurreak idatzi eta Fernando Bernuesek zuzendutako lan honetan.

Lanak, eskola jazarpena gaitzat hartuta, Igor izeneko gimnasia irakaslea dauka protagonista. Hamaika urteko ikasle baten gorpua aurkituko dabe urkatuta eta irakaslea erruduntzat jota, ingurukoak baztertu egingo dabe. Ondorioz, irakasleak bilaketa bateri ekingo deutso eta horretan, errua eta erantzukizunaren arteko mugak marraztuko dira.

antolatuta, Zeberioko plazatik Untzuetara igoera; 11:30ean, hamaiketako herrikoia Untzuetan; 12:00etan, aurrekua eta ekitaldia; 15:00etan, herri bazkaria Arrankudiagako Gizarte Etxean.

## MAIATZAK 6

## AREATZA

10:00etan, IV. Ganadu eta Artisanu Azokea; 11:30ean, erraldoiak; 12:30ean, baskulearen apustua; 13:30ean, amaiera eta zozketea.

## IGORRE

09:00etatik 20:00etara, Igorren Ebartzik antolatutako herri kontzertua. 12:30ean ekitaldia Kultur Etxeko parkean. Egunean zehar musika eta animazioa. Botoak zenbatu osten, emaitzen bari.

## LEMOA

Ganzabalek antolatuta, goizeko urtekerea.

## ZEANURI

Zeauriko Erroten Ibilaldia. 08:30ean, izen emotea; 09:00etan, urtekerea.

Herri galdeketearen urteurrena; 12:30ean, GEDk antolatutako ekitaldia: Mezua, koplak eta jantzak; 13:00etan, talo jana sagardoagaz. Bagilaren 10erako Giza katearen gaineko informazioa plazan.

## MAIATZAK 7

## LEMOA

19:00etan, Euskal Memoria Fundazioak antolatuta, *Gogoan hartzeko izenak* erakusketearen aurkezpena udaltxearen. Hilaren 11ra arte.

## MAIATZAK 8

## LEMOA

18:00etan, umeentzako kontzertu-tailerra *Musika ulertzeko eta maitatzeko bide barria*

Trakamatrakaren eskutik ludotekan.

## MAIATZAK 9

## LEMOA

19:00etan, Udalak antolatuta, poesia musikatu *Hots hiru ahots bakarrean*. Itxaro Borda eta Itsaso Gutierrez Elizondoko Kultur Gunean. Ondoren, VII. Narrazio Lehiaketako sari banaketea.

## ZEANURI

08:30ean, Gorbeia jubilatuta eta pensionisten alkarteak antolatuta, Mirandaola, Ordizia eta Oñatira txangoa.

## MAIATZAK 10

## AREATZA

19:00etan, Gorbeako Gurutzeta Athletik Club Peñak antolatuta, *Emakumea eta futbol* mahaingurua udaltxeko Aretan Nagusian.

## LEMOA

19:00etan, Udalak antolatuta, ikus-entzunezkoa *Gernikaren egia Oroimen biziko herria* eta barriketaldia Ibon Menika eta Haritz Petralandagaz udaltxeko pleno aretoan.

## MAIATZAK 11

## ARANTZAZU

17:00etatik 20:00etara, *Autodefensa feminista* ikastaroa Maitena Monroyren eskutik Kultur Gunean.

## AREATZA

18:30etik 20:00etara, Giza katerako informazio mahaia eta tailerra plazan.

## IGORRE

19:00etan, Zugar Ni antzerki topaketak Lasarte Aretan. Igorreko talde bi eta Zomatzako bi.

## LEMOA

17:00etatik 19:00etara, JB Eguzkitza Meabe Ikastetxeko Guraso Elkarrekin antolatuta, kometa tailerra eskolako aterpean; 20:00etan, seripotea, serigrafia eta poteoa Kodigo tabernatik hasita, Torontileren eskutik.

## MAIATZAK 12

## ARANTZAZU

10:00etatik 13:00etara, *Autodefensa feminista* ikastaroa Maitena Monroyren eskutik Kultur Gunean.

## AREATZA

20:00etan, Zurrunka Teatro konpainiaren *Ac-nun, un cipres en un desierto* antzerkia udaltxeko Aretan

Nagusian.

## IGORRE

10:00etan, Arratia Raid ertaina.

## LEMOA

Lemoa Kustik Fest Udalak antolatuta. 12:00etan, Maren eskolako aterpean; 13:30ean, Liv Wallace eskolako aterpean; 16:00etan, Keu eskolako aterpean; 17:30ean, Inun eta Bihotz Gorospa Arlonagusia plazan; 19:00etan, Ekiza ambulatorko plazan; 22:00etan, Izaro kiroldegian.

## ZEANURI

11:00etan, Zeauriko II. Olinpiadak, jarraian umeentzako puzgarriak; 14:30ean, herri bazkaria, herriko trikitaliak girotuko dabe bazkalostea; 16:00etan, pala eta fronteniseko partidua, Bizkaiko banakako finalak; 17:00etan, Altxoraren Bila; 19:00etan, Abesbatzen Udabarriko kontzertua Andra Mari eleizan; 23:00etan, Gozategi taldeagaz erromeria.

## ZEBERIO

07:00etan, Zeberio Harana 50 kilometroko mendi marxea. Zubialde plazatik.

09:00etan, Emakumeen I. Klasikoa. Kadeteak; 10:30ean, Eliteak eta Juniorrak. Bizkaiko Txapelketa.

## MAIATZAK 13

## DIMA

10:00etatik 14:00etara, Ganadu, Nekazaritza eta Eskulangintza Azokea.

Dantzari Txiki Eguna. 10:30ean, harrera eta hamarretakoa; 11:30ean, kalejirea; 13:00etan, alardea plazan; 14:00etan, bazkaria; 15:30ean, berbenea Ein Go taldeagaz.

## IGORRE

17:00etan, zinea *Rabbit School: los guardianes del huevo de oro*; 19:30ean, *La tribu* Lasarte Aretan.

## ZEANURI

11:00etan, Bizkaiko pala eta fronteniseko banakako finalak.

## MAIATZAK 14

## IGORRE

Bagilaren 1era arte, Sergio Saezen erakusketea Kultur Etxeko Erakusketa Gelan.

## MAIATZAK 15

## ZEANURI

10:00etatik 14:00etara, San Isidro Azokea. 17:30ean, idi-probak eta Arrikabar jantza taldekoen erakustaldia.

## IRAGARKI LABURRAK

## SALDU

## AUTOA SALGAI

Suzuki SJ 410 Hard Top urdina (3.200 euro). 130.000 km., 45 zaldi, ITVa pasauta, errobera barriak, narruzko jesarlekuak, mantenimendu guztia egunean eroandakoa, garajea aparkautakoa eta atoi boleagaz. Telefonoa 688 602 516.

## AUTOA SALGAI

Nissan Terrano II 2.7. Motorra egoera onean, remolkearentzako boleagaz, 3 ate eta 232.000 kilometro. 1999 urtekoa. Telefonoa 628 041 526.

## BEDARRA SALGAI

Bedar siku bolak salgai. Interesdunak 628 041 526 telefonora deitu.

## DANERIK

## LAN BILA

Lana behar dogun Areatzako bikotea gara. Arlo honeetan behar egiteko prest gagoz: ostalaritza, edadekoen zaintza, mendia, garbikuzia, komertzioa, nekazaritza... Interesdunak deitu 632

159 270 telefonora.

## JATETXEA ALOKAIUAN

Urbide jatetxea alokatzen da Ubiden. Errendimendu osoan, eta erabat horniduta. 50 lagunentzako lekua. Interesdunak deitu 609 384 700 edo 679 112 216 telefonora.

## ZERBITZARIA BEHAR DA

Igorreko Axular Herriko Taberna zerbitzaria behar da astegoienerako. Interesdunak 94 673 70 92 telefonora deitu edo bertan emon izena.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) era. Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

## Zenbaki honetako saridunak:


**1 Arratiako Udalen Mankomunitateak emondako Arratiako Dantza-Koplak liburua.**

Aitor Esteban (Zeberio)



**2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Soka antzezlanerako.**

Elias Artabe (Arantzazu) Kubulu Euskaltegia (Igorre)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 16

urte eta

ehundaka

lagun.



**DENPORA-PASA**

IMAN OLATU

|   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
|   | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| 1 |   |   |   |   |   |   |   |
| 2 |   |   |   |   |   |   |   |
| 3 |   |   |   |   |   |   |   |
| 4 |   |   |   |   |   |   |   |
| 5 |   |   |   |   |   |   |   |
| 6 |   |   |   |   |   |   |   |
| 7 |   |   |   |   |   |   |   |
| 8 |   |   |   |   |   |   |   |
| 9 |   |   |   |   |   |   |   |

**EZKERRETIK ESKOIERA**

1.- Pekatu. Bokala. 2.- Apurtu. Emea ez dana. 3.- Artotza. 4.- Letra bat. Ensaladak egiteko erabilten da. 5.- Nori atzizkia. Uranioa. Neodimioa. 6.- Andra egin. Azken bokala. 7.- Galtzea. 8.- Zintzo. Ordena. 9.- Bat erromatar. Horen, hain.


**GOITIK BEHERA**

1.- Helioa. Aldarri. 2.- Landara mota bat. Burdina erakarten dau. 3.- Hotzik ez dauanean. Jainkoa, hizkuntza semitikoetan. Letra mutua. 4.- Adigarri. 5.- Nitrogenoa. Hotza adierazoten dau. Koipe. 6.- Edade. Eskubara, nekazariaren lanabes. 7.- Zolitu. India.

|    |   |   |   |   |    |    |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|----|---|---|---|---|----|----|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 6  | I | N | O | H |    | 6  | V | R | V | I | V | O | X | I | Z |
| 7  | R | I | K | N | O  | 8  | N | I | V | O | X | I | Z | O | S |
| 8  | L | E | R | A |    | 9  | V | R | V | I | V | O | X | I | Z |
| 9  | U | E | M | E |    | 10 | V | R | V | I | V | O | X | I | Z |
| 10 | D | N | U | R |    | 11 | V | R | V | I | V | O | X | I | Z |
| 11 | I | N | I | P |    | 12 | V | R | V | I | V | O | X | I | Z |
| 12 | A | D | A | R |    | 13 | V | R | V | I | V | O | X | I | Z |
| 13 | V | A | R | E |    | 14 | V | R | V | I | V | O | X | I | Z |
| 14 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5  | 15 | V | R | V | I | V | O | X | I | Z |
| 15 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 16 | V | R | V | I | V | O | X | I | Z |

Topau sueteko zazpi tresnaren izenak.

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| F | E | R | A | T | X | O | L | E | B |
| O | L | I | R | B | U | G | E | Z | U |
| T | A | R | R | I | A | Z | T | O | R |
| X | K | A | I | Z | O | S | X | A | D |
| E | T | Z | A | L | K | A | U | B | U |
| B | I | K | O | T | I | M | O | A | N |
| A | Z | I | D | A | P | O | Z | I | T |
| A | B | A | K | A | A | H | U | L | Z |
| I | R | A | G | E | L | A | K | U | A |
| B | L | E | K | A | M | U | D | A | L |
| P | I | Z | T | E | U | G | Z | K | I |
| Z | A | R | T | A | G | I | N | A | A |
| N | O | L | A | R | L | P | I | N | K |
| O | K | A | D | A | L | P | O | R | B |
| Z | T | X | O | L | A | T | A | B | A |



Agirre Lehendakari, 31 • 48140 IGORRE  
Tfnos. 94 631 92 96 • sema@hotmail.com

**Dia %**  
**PEDRO**  
**AUTOZERBITZU**  
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre  
Tel. 94 631 15 26

**AKEITEGIA**  
**GATY & LORA**  
**IGORRE**

**Igorren**  
**ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.  
Angel Larrea  
Zornotza Tlfnoa 649 86 95 36

**KIRRU**  
ILEAPAINDEGIA  
ROSANA eta ROBER  
SABINO ARANA 38  
IGORRE  
TUF. 94 631 92 00

**Beer & Edariak s.l.**  
HEINEKEN SOLARES  
Polig. Mendaketa, s/n 48530 LEZMOA, Bizkaia  
Tel: 609 482 830 / 609 206 717

**ASEGURUAK:** AUTOAK, ETXEBIZITZAK, DENDAK, ISTRIPUAK, BIZITZA...  
**ZUZENBIDE**  
ABOKATUAK, ZUZ. ZIBILA, KONTSUMO ZUZ., ADMINISTRAZIO ZUZ., INGURUGIRO ZUZ., KONTABILITATEA  
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96  
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

**BIXER**  
**TABERNA**  
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

**Jose Luis**  
**Corbacho**  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3. 3a  
Igorre 48140 Bizkaia  
Tel: 94-673-70-87  
Tel: 609-79-40-54

**ZEKUTZE**  
JATEXEA  
Sabino Arana, 34  
48140 IGORRE - Bizkaia  
Tel: 94 631 52 83  
zekutejatexa@hotmail.com

**Pinturas Anatia**  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

**BIZARGINAK**  
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu. Bizarra egin eta bukunduten dogu.  
Tel. 94 607 78 33  
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE





# AGROARRATIA

**94 631 32 17**  
**Pozueta Ind. 11 J**  
**LEMOA**

Astelehenetik barikura:  
09:00etatik 13:30era  
eta 16:00etatik 19:00etara.  
Zapatuetan: 09:00etatik 13:30era.



## Zure nekazaritza eta abeltzaintzako dendea

**KONSUMORAKO PATATAK**

**ZOHIKATZA, HAZIAK,  
PRODUKTU FITOSANITARIOAK**

**BURDINDEGIA**

**ARDO UGARI**

## Oiloak, oilaskoak eta kapoiak agindura



**Txakur eta katuentzako  
pentsu aukera barria**

**Kalidade handiko  
ortuko landareak**



2018ko kanpaina.  
Konpetentziarik bako  
aukera eta prezioak



## Ohiko pensu eta pensu ekologikoetan aukera handia



**Landa-oiloentzako  
pentsua 25 kg.  
8,75 euro.**

